

# AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

**AURKIBIDEA:**

1. LAN ERREFORMAK ETA MURRIZKETEK LANGABEZIA ETA POBREZIA GEHIAGO DAKARTZATE
2. ESTATUKO 2012KO AURREKONTUAK
3. GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO SOZIETATEEN ZERGA ERREFORMATZEKO ELAREN ADIERAZPENA
4. PROPOSAMENA: ORDAINETAN EMATEA ETA ALOKAIRU SOZIALA

### 1. LAN ERREFORMAK ETA MURRIZKETEK LANGABEZIA ETA POBREZIA GEHIAGO DAKARTZATE

Enplegu Zerbitzu Publikoaren zerrendetan izena emandako langabetuen kopurua 213.470 pertsonatakoa izan da 2012ko martxoan Hego Euskal Herrian, otsailean baino 2.196 gehiago eta duela 12 hilabete baino 16.614 pertsona gehiago. Langabezia tasa %15,7koa da, EB-27ko batz bestekoa baino 5,5 puntu handiagoa (%10,2koa da 2012ko otsailean).

Era berean, langabetuek jasaten duten babes sozial ezak egoera larriagotzen du. HEHan 90.264 pertsona langabetu dago inolako prestaziorik jasotzen ez duena (guztien %42,7a), eta %35,6ak soilik jasotzen du kontributiboa, eta subsidioak edo oinarritzko errenta jasotzen dutenak %21,6a dira.

Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuek 2012. urtean zehar sinatu diren 195.482 kontratutik 182.172 behin behinekoa direla adierazten dute, hau da, %93,2a.

Egoera larri honen aurrean, Gobernuak langabezia eta pobrezia gehiago dakartzaten lan-erreformen alde egiten jarraitzen dute. Baita enplegu eta babes sozialarentzat erabat kaltegarriak direla erakutsi duten murrizketen alde. Ez da langabetuen egoera hobetzeko neurri bakar bat ere hartu.

Politiken norabidea guztiz aldatzea beharrezkoa da, eta hau mobilizazio eta antolakuntzaren bidetik etorriko da soilik. Pasa den martxoaren 29ko grebaren arrakastak arnasa ematen dio politika injustu hauen aurkako borrokari.

### 2. ESTATUKO 2012KO AURREKONTUAK

Espainiako Gobernuak joan den martxoak 30ean, onetsi zituen 2012ko aurrekontuen egitasmoa. Halaber, argindarraren eta gasaren prezioak igotzea onetsi du, eta tasa judizialak ere igoko direla iragarri du.

Aurrekontuen helburua defizit publikoa murriztea da. 2012. urterako defizita BPGdren %5,3an finkatu dute. Gainera aurreko Zapateroren gobernuak 2013rako BPGdren %3ko defizita itundu zuen. Gogoratu beharrekoa da aurtengo ekainean 2013ko aurrekontuen izapideak hasi behar direla, beraz orain proposatu diren doikuntzez gain datorren urtekoak ere gehitu beharko direla. Horrez gain, bai Eusko Jaurlaritzak eta baita Nafarroako gobernuak defizit publikoaren zifrei oneritzia eman zieten 2012ko aurrekontuak egiterako orduan.

Rajoyren gobernuak, defizita 1,6 puntutan murrizteko helburuarekin, 27.300 milioi eroko aurrekontuen murrizketa aurkeztu du. Gobrnua espainolak kontuan hartu du zenbait gastu haziko direla, horien artean zorraren interesak, 1.448 milioi euro haziko dira.

Gobernu espainolak 2012rako adostutako murrizketa nabariak hauek dira:

#### Diru sarrerren neurriak:

- Sozietateen Zergaren igoera. Horren bidez 5.350 milioi euro biltzea espero dute. Sozietateen Zergaren kenkariak dezente mugatu dira, eta dibidenduak sorterriratzearen gaineko %8ko zerga berezia ezarri da. Neurri horren bidez Sozietateen gaineko Zerga dela-eta egiten den diru-bilketa %32 igoko da,

2011koaren aldean (zerga horren presio fiskala BPGaren %1,5etik %2ra igaroko da).

- Amnistia fiskala. Ezkutuko errentak azaleratzea du helburu, %10 urri bat ordaintzearen trukean. Isilpean geratuko delako bermeak ematen dira. Gobernuaren aburuz, horrela 25.000 milioi euro azaleratuko dira, eta 2.500 milioi euro gehiago bildu ahal izango dira.

### Gastuaren neurriak:

Ministeritza guztien gastua 13.400 milioi eurotan murriztu da, 2011rekiko %16,9ko murrizketa eman da. Defentsa eta Barne Ministerioen gastu-murrizketa batez bestekotik nabarmen beherakoa da eta gauza bera gertatzen da Errege-etxearekin, esleitutako diru kopurua %2a bakarrik murriztu dute.

Murrizketarik deigarrienak hauexek dira:

- Langabezi prestazioak 1.669 milioi euro. Nahiz eta gobernuak onartu duen aurten langabetu kopuruak gora egingo duela, langabezi prestazioei zuzendutako baliabideak murriztu dituzte. Honek babes maila baxua dela adierazten du. Langabezian eta inolako estaldurarik gabe dagoen persona kopuruak goraka egin du nabarmen, eta babesa duten langabetuen artean prestazio asistentziala dutenak gero eta gehiago dira, hauen diru kopurua prestazio kontributiboarena baino baxuagoak direlarik.

- 1.565 milioi enpleguaren politika aktiboari dagozkie, formazioa (langabetuena eta okupatuena) edo kontrataziorako hobariak barne daudelarik.
- Sustapen Ministerioaren inbertsioetan eragina dutenak. Hainbat diru-sail murriztu dira, gutxienez 2.600 milioi eurotan.
- Garapenaren aldeko laguntza 1.300 milioi txikiagoa izango da (%72 gutxiagotzea).
- Etxebizitza erosteko laguntzetarako 322 milioi gutxiago.
- Hezkuntzaren transferentzietan 530 milioi euro murriztuko da.
- Menpekotasunaren diru-saila, 283 milioi eurokoa, ezabatuko da. Diru-sail horren zertarako azpiegiturak (adinekoen egoitzak) eta administrazio-zerbitzuak ziren.

Aurrekontuek lanaldia 37 ordu eta erdira luzatzea jasotzen dute, oinarritzko izaeraz, administrazioaren zerbitzura dagoen langileria ososari eragiten diolarik, Erkidego Autonomoak eta herri erakundeak barne.

Argindarra %7 igotzea onetsi du. 2008az geroztik argindarraren igoera %37koa izan da. Gasaren tarifak ere %5 egingo du gora.

Orobat, lege-aldaketa bat iragarri dute, tasa judizialak ezartze aldera, lan-arloko jurisdikzioari ere eragingo diolarik.

## 4. Buletina

2012ko Apirilak 13

- Rajoyren gobernuak proposatzen dituen gastu-murrizketek ekonomiaren atzeraldia areagotuko dute, gizarte-babesa mugatu, eta langabezia ugaldtu. Herritarrak pobretzea helburu duen politikari beste bultzada bat ematea da.
- ELAk, gainera, uko egiten die administrazioetako langileen aurkako eraso berriei. Soldata-izozketa berriarekin eroste-ahalmenak %10 eta 13 bitarteko galera izan du azken urteotan. Lanaldia 37 ordu eta erdira luzatzea, lanpostu hutsak ez betetzea, eta EPERik ez antolatzea, enplegu publikoa suntsitzeko neurriak dira. Hori dela-eta, zerbitzu publikoen kalitatea lorrinduko da arian-arian. ELAk eskatzen die EAEko eta Nafarroako Administrazioei berezko dituzten eskumenei eusteko, eta lanaldia ez luzatzeko. Azpimarratu behar da 35 orduko lanaldia 1999an Nafarroako Legebiltzarrean eta EAEn 2000. urtean onetsi zela Eusko Legebiltzarrean, Gizarte Eskubideen Gutunaren Legeen bidez; eta legegintzako herri-ekimenen emaitza izan zela, 100.000tik gora sinadura batu ostean. Beraz, ELAk ez dio onartuko inongo administrazioari esatea neurri hori aplikatzera beharturik dagoela. Hego Euskal Herriko sektore publikoan 35 orduko lanaldia aplikatzen jarraitzeko badago arrazoi nahikorik, bai eskumen, bai politika, bai gizartearen arloetatik.
- Sozietateen gaineko Zerga igotzea partzialki txalogarria da. Aski ezaguna da badaudela kenkari eta hobari ugari, eta enpresek sozietateen zergaren bidez etekinen gainean benetan ordaintzen duten portzentajea oso txikia dela. Egia da, halaber, azken urteotan zergaren tasa nominala jaitsi izan dela, eta hori ez dela erreformaz aldatu. Zergaren igoera ez da aplikagarria EAEn eta Nafarroan. Beste behin, 2011n PFEZarekin gertatu zen bezala, Rajoyk agerian utzi ditu hiru foru-aldundiak eta hiru biltzar nagusiak, hala nola Nafarroako Gobernua eta Parlamentua. Politika fiskala zeharo aldatu behar da, sozietateen zerga nabarmen igoz. Dena dela, deitoragarria da Rajoyk gehiago egitea arlo horretan, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako eskudun erakundeek baino.
- Politika fiskalaren barruan zerga-iruzurrari aurka egin behar zaio, orain arte egin ez den bezala. Alde horretatik, gobernu espainolak onetsitako amnistia fiskala egin behar denaren kontrako da. Ezkutuko kapitalak %10 ordainduz zuritu ahal izateak argiro erakusten digu zenbatekoa den iruzurrari aurka egiteko borondate politikoa. Amnistia fiskalaren mezua iruzurra egiten jarraitzeko gonbidapena da.
- ELAk mobilizazio sindikala bultzatuko du, iragarritako murrizketei aurre egiteko; eta Hego Euskal Herriko administrazioei eskatuko die politika fiskalak eta aurrekontukoak goitik behera aldatzeko, enplegua behar bezala sustatzearen, eta goraka doazen gizarte-beharrizanak (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, ingurumena...) betetzearen. Politiken norabidea aldatzeko beharra gero eta

premiazkoagoa da. Politikak aldatu ezean, politika antisozialak eta murrizketak aplikatuz jarraitzea da. Beraz, ELAk dei egiten die Nafarroako eta EAeko erakundeei murrizte-politikarik ez aplikatzeko.

[Balioespena, Rajoyren 2012ko aurrekontuei buruz](#)

### **3. GIPIZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO SOZIETATEEN ZERGA ERREFORMATZEKO ELAREN ADIERAZPENA**

Joan den apirilaren 3an ELAk agerraldia egin zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan Sozietateen gaineko Zergaren erreformaren inguruan adierazpena egiteko.

Gipuzkoako Aldundiko Ogasun eta Finantza sailak Sozietateen zerga aztertu du, eta agiri bat egin du etorkizunean Zergaren araudia erreformatzeko hainbat ohar biltzen duelarik. Hau 2012an egitea espero du.

Edukietan, teoriarik dagokiona baino gutxiago ordaintzeko modua ematen duten pizgarri eta onura gehienak ezabatzeko borondatea agerikoa da. Hauek dira proposatzen diren neurri nagusiak:

- Amortizatzeko askatasuna aplikagarria den gutxieneko kopurua berrikustea.
- Sistema fiskaleko izakinak balioesteko modua aldatzea, kontabilitate sisteman erabiltzen den era egokitzeko.
- Finantza-gastuen gaineko kenkariak egiteko aukera mugatzea, enpresen gehiegizko zorpetzea saihesteko.
- Dirutan ordaintzen diren erosketak eta gastuak ez onartzeko aukera aintzat

hartzea, horrela kenkariak gutxitzen direlarik. Beste aukera bat ere badute kontutan: garraio araudian jasota dauden frogagiririk gabeko gastuen gaineko kenkariak galaraztea.

- Inbertsioagatik salbuespena berrikustea.
- Zerga-oinarri negatiboak eta aurreko ekitaldietako inbertsioagatik egindako kenkariak konpentsatzeko epealdia berrikustea.
- Berrikustea ea merkataritza-fondo inplizituarekin lotutako kenkaria mantenduko den.
- Esanguratsuak ez diren kenkariak ezabatzea.
- I+Gko eta berrikuntza teknologikorako jardueren gaineko kenkariak mugatzea.
- Mezenazkoaren erregimen berezian irizpide konkretuak finkatzea.
- Erregimen bereziak berrikustea: enpresak sustatzeko sozietateak, partzialki salbuetsitako erakundeak, FEAC operazioak, kooperatibak, etab.
- Sozietateen kanpaina aurreratu edo atzeratzeko aukera aintzat hartzea.
- Zergaren ordainketa zatikatua berreskuratzea.

ELAk uste du proposatutako erreformaren zentzua bat datorrela 2011ko iraileko gure agirian jasotako proposamen batzurekin, batik bat tasa erreala nominala baino askoz apalagoa izatea eragiten duten kenkariak gutxitzeari dagokionez. Alabaina, hartu beharreko erabakietan ez dago zehaztasun handirik. Gainera, Aldundiaren proposamenari dagokionez, ez gatoz bat zergaren tasa nominala gehitzeko aukera baztertzeko asmoarekin, 1996tik hona 7 puntu murriztu baita.

ELAren iritziz araudi fiskala errotik aldatu beharra dago (Sozietateen gaineko Zerga barne), eta iruzur fiskalari jazartzeko neurriak hartu behar dira. Aldaketa hauek bi arrazoiengatik dira beharrezkoak. Lehenik, zerga-sistema justuago eta solidarioagoa izan dadin. Bigarrenik, diru-bilketa gehitu beharra dagoelako Europarekiko gizarte-babesean eta zerga-presioan dugun defizita zuzentzeko.

Deigarria iruditzen zaigu erakundeen paralisia (EAEn Foru-Aldundiak eta Batzar Nagusiak eta Nafarroako Gobernuak eta Batzar Nagusiak). Egungo zerga-sistemari eustea, edota aldaketa oso txikiak egitea (esaterako, 2011n PFEZarekin egin zirenak) esan nahi du, krisi egoera honetan eta diru-bilketa gutxitzen ari delarik, babestu egiten direla langabezia eta babesgabezia soziala areagotzen duten murrizte politikak. Hau erantzukizun politiko handia da. ELAk ez du onartzen erakundeek batetik esatea murrizteko politiken aurka daudela, eta bestetik, indarrean dagoen zerga-sistemarekin jarraitzea.

Rajoyen gobernuak EAeko erakundeak nabarmen uzten ari da. Hasteko, joan den abenduko PFEZaren erreformarekin, eta oraintsu berriro, martxoaren 30ean Sozietateen Zergan erabaki duen igoerarekin: bilduko den dirua %32 gehituko da (BPGaren %0,5). Ez da aski, baina bai Gipuzkoan, Araban, Bizkaian edo Nafarroan egiten ari dena baino gehiago. Hau harritzekoa eta ulertu ezinikoa iruditzen zaigu.

Horrenbestez, ELAk ezinbesteko ikusten du EAEn indarrean dagoen zerga-sistema bidegabea aldatzea. Horretarako, gogoratu nahi ditugu ELAk irailean Aldundiei bidalitako proposamen batzuk; hauek gauzatzeko borondate politikoa besterik ez da behar.

### Iruzur fiskalaren jazarpena:

Soldatapeko ez diren errentetan dagoen iruzur izugarriaren aurkako borrokan honako erabakiak hartu behar dira, besteak beste:

- Soldata ez diren errenta guztiak ikuskatzea (PFEZ, Sozietateen Zerga eta BEZari dagokionez) iruzurra iraungi baino lehenago (hots, orain urtero kolektibo honen %1 baino gutxiago ikuskatzen bada, %20raino gehitu behar da).
- Giza-baliabideak zeharo gehitu behar dira, ikuskapen kopurua handiagoa izan dadin.
- Zerga gutxiago ordaintzeko modua ematen duten lege-mekanismoak sakon aztertzea eta ezabatzea (zuzeneko zerga guztietan).
- Iruzur fiskalari buruzko aldizkako azterketak egitea.

### Sozietateen Zerga

ELAk honakoak proposatzen ditu:

- %35eko tasa nominal bakarria ezartzea.
- Kenkari fiskalak erabat murriztea, izan ere, ordaintzen den tasa erreala tasa nominalaren erdia besterik ez baita.

Oporraldi fiskala zertan den eta zein eragin izan duen argitzea iritzi publikoari (zenbaterainoko maila izan zuen, zenbat diru berreskuratu den eta zenbat ez, isunekiko estrategia...). Zergan berriazko errekaratu bat ordainarazi behar da, ezar daitezkeen isunak kitzatzeko.

### Parte-hartze sozialerako mekanismoak

- Zerga-politika definitzeko partaidetzazko prozesu bat egin behar da, eta horren baitan beharrezkoak dira sindikatuek parte hartzeko mekanismo instituzionalizatuak.
- Halaber, herritarrei gai honekiko kontsulta ere erreforma fiskaletarako erabili beharreko tresna izan behar da.

### Eusko Legebiltzarrak zerga-gaietan legeak egitea

ELAren ustez, egungo zerga-politikako erabakitze esparrua aldatu beharra dago. Foru-erakundeek Ekonomia-Ituna eta Autonomia-Estatutua aipatzen dituzte gai honetan duten eskumena defenditzeko, baina ez da harrizkeoa ere Zerga-Koordinaziorako Organoan behar den lankidetzaz aitzakiatzat hartzea aplikatzen ari diren politiketan funtsezko aldaketa ekarriko duten proposamenak baztertzen dituztenean.

Gure ustez, ZKO (Jaurlaritzak eta Foru-Aldundiek erdibana osatua) erakunde guztiz opakua da, eta sistemaz ebasten dio gizarteari beroni zor zaion informazioa eta eztabaida. Alde baten betoak praktikan ezinezkoa egiten du fiskalitatea gizarte-justiziara bideratzeko modua. Gaur arte ZKO patronalaren interesen aldeko tresna oso egokia gertatu da. Sindikatuen parte-hartzea eragotzi egin dute, baina Confedebaskekin, aldiz, harremana etengabekoa izan da. Bizkaiko Ogasun diputatuak oporraldi fiskalari buruz esan zuen moduan, "patronalak eskatutakoa egin dugu".

ELAren aburuz zerga-araudiari buruzko erabakiak Eusko Legebiltzarrean hartu behar dira, eta ez Batzar Nagusietan. Noski,

Legebiltzar horretan gure herriko pentsamolde politiko guztiek izan behar dute lekua. Gaur osasungintza, hezkuntza edo etxebizitza-politika lurralde bakoitzean hartzen diren erabakien baitan garatzen dira, eta honek ez du zentzurik.

[Gipuzkoako Batzar Nagusietako Sozietateen Zerga erreformatzeko ponentzia. ELAren adierazpena](#)

### **4. PROPOSAMENA: ORDAINETAN EMATEA ETA ALOKAIURU SOZIALA**

Etxebizitza arloan dauden arazo larrien erakuslerik gordinenetako bat, etxebizitzatik kaleratu diren pertsona kopuruaren igoera izugarria da. Bankuen eskutik kalean geratzen diren pertsona eta familia kopurua ikaragarria da.

Krisia 2008an hasi zenetik, Hego Euskal Herrian 7.071 hipoteka exekutatu dira, hauek dakartzaten kaleratzeekin. Datu honek egoeraren larritasuna azaltzen du, non krisi aurreko eta krisi garaiko (2007 eta 2008 urteetako) bilakaerak hipoteka exekuzioak %88,5 igo zirela adierazten duen.

#### HIPOTEKA EXEKUZIOAK.

##### HEH, 2008-2011

	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>
ARABA	192	292	221	238
BIZKAIA	557	663	594	586
GIPUZKOA	236	300	360	350
NAFARROA	451	738	679	614
<b>HEH</b>	<b>1.436</b>	<b>1.993</b>	<b>1.854</b>	<b>1.788</b>

Etxea kendu eta kalean geratzen den jendearen egoera oso larria da, izan ere, etxea galtzeaz gain gehienetan bankuarekin zorra izaten jarraitzen dute. Zor hau etxea

enkantera ateratzean tasatutakoa baino prezio txikiagoan saltzen delako izaten da, eta banketxeek ezartzen dituzten interes altu eta baldintza gogorrenatik ere. Guzti honen emaitza pertsona eta familiak etxea galdu eta oraindik ere bankuei hipotekaren zati bat ordaindu behar izatea da.

Egoera honen aurrean hiru exigentzia daude:

Lehenengoa **kaleratzeak gelditzea** da. Jende askok hipotekak ezin ordaindu izanaren inguruan ezin da instituzio publikoen eta finantza erakundeen ardura ahaztu. Instituzio publikoak bankaren esanetara jarri dira, eta honek lukurreriaz jokatzeko du hipotekak finantzatzeko baldintzak ezartzerako orduan.

Bigarrena etxea bera **ordainetan ematea** da. Ordainetan emateak, hipoteken kasuan, zordunak hartzekodunari etxea bera ematea da, era honetan zorra kenduz. Hau eginez gero, hipoteka ordaindu ezin dutenek, etxea bera eman eta zorrik gabe geldituko lirateke bankuarekin.

Hirugarren exigentzia **alokairu sozialeko etxebizitza parke publikoa** sortzea da. Hipoteka ordaindu ezin dutenen arazoa ez da ordainetan ematearekin bukatzen, pertsona hauek etxerik gabe gelditzen baitira. Beharrezkoa da alokairu sozialeko etxebizitza parke publikoa sortzea, alokairuaren prezioa norberaren beharretara egokituz. Parke honen sorrera eta prezio soziala ezartzea gizartearen zati handi batek duen etxebizitza arazoari aurre egitea da. Proposamen honek kaleratzeen afera gainditzen du beraz.